


2.2 GAIAREN LANKETA

> Birpasa



- Joxeren gutuna



Kaixo lagunok,



Zer moduz zaudete? Esan didate Euskal Herrira ere beroa iritsi dela. Dagoeneko egunak luzeagoak dira eta alde guztietan txorien txio-txioa entzun daiteke, loreak ere nonahi aurkitzen dira. Pasa da, beraz, negu gogorra: euria, elurra, ekaitza, txingorra... hotza. Txamarra lodiak armairuan gorde eta arropa arinagoak erabiltzen has gaitezke.

Eta, esadazue? Zuek zer moduz zabilzate euskara ikasten? Zerbait ikasi duzue? Bidali dizkizuedan gauzak gogoko izan dituzue? Oraindik ez dut jaso zuen berririk, e!

Albiste bat emateko idatzi dizuet: banoa Nikaragutatik lekuz aldatzeko garaia dela uste dut. Oso gustura egon naiz Matagalpako basoetan eta lagun asko egin ditut, baina munduko txoko guztiak ezagutu nahi ditudanez, banoa. Oraindik ez duzue Kintxo ezagutu e! baina, lasai bidaia luze bat dut aurretik eta, nire helmugara iritsi bitartean, ikasgelan egiteko lanak eman dizkiot zuen irakasleari.

Badakizue nora noan? Europara! Oraindik ez dizuet nora esango, baina nire ipuinik maitatuena idatzi zen lekura noa. Badakizue ipuinak asko gustatzen zaizkidalta eta gooa daukat ipuinean hainbeste aldiz irakurri ditudan parajeak ezagutzeko.

Proposamen bat dut zuentzat: Egin zerrenda bat. Ea asmatzen duzuen zein garraio-bide erabiliko ditudan Europara iristeko. Hegazkina, itsasontzia...? Helmugara iristen naizenean izango duzue nire berri!

Bitartean, mila patxo bakoitzari: JOXE

